

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

- Kostu finkoak: Ez ditugu kostu finkoak
- Kostu aldagarriak: Gasolina, taxien mantenimendua, ITV-a, alkoholaren kostua.
- Eskala-ekonomiak: Suposatzen dugu abendua eta abuztua izaten direla etekin ekonomiko gehien aterako ditugun hilabeteak, izan ere, jendea hilabete hauetan denbora asko egoten da etxetik kanpo; egunpasak, parrandak... egitera eta gure kalkuluen arabera, esan dezakegu gure salmenten kopurua beste hilabeteen hirukoitza izango dela.
- Hedapen-ekonomiak: Beste herrialde batzuetara eramatea guk eskainitzen ditugun zerbitzuak, Uber eta Cabify enpresei konpetentzia egiteko, eta aprobetxatuz, taxi autonomoen sustaketa zabaltzea, sektore automobilistikoa garatuz joateko. Negozioak bere fruituak ematen baditu espero dugu hemendik hiru bat urtera Alemaniararte hedatzea gure zerbitzuen disponibilitatea. Negozioaren etekin ekonomikoak esparru internazionalen maximizatzen direla ikusten badugu, esparru interkontinentalerako hedapena planteatuko genuke.